

SANTO KRISTO LIXIBAKOA

(AITA AGIRRETXEK JASOA)

Joseba Sarasola

Aita Eugenio Agirretxe 2.005eko uztailaren 7an zendu zen, Bermeoko frantziskotarren komunitan, 84 urterekin.

Errezilen sortu zen, 1.920ko azaroaren 15ean eta bere meza berria Errezilen eman zuen 1.944 urtean. Euskal Herrian zehar hamaika herri eta hirietan ibilia zen eta lan ugari egin zuen herri-misioetan eta gizarte arazoetan.

Euskara alorrean ere nabarmendu zen bere etengabeko jardunean. Eta egindako lanarengatik, Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen 1957ko uztailaren 26an eta euskaltzain ohorezko 1.998ko apirilaren 24ean.

Aita Eugeniok bere bizitzaren 14 urte eman zituen Errenterian; Zamalbideko elizaren ondoan bizi izan zen frantziskotarren komunitate batean, beste 3 frailekin.

Ugariak dira urte horietan talde horrek auzoan egindako lanak. Eta horien isla aldizkari honetako beste artikulu batean aurki dezakezue.

Baina bada, horien artean, Aita Eugenio Agirretxek eta Iñaki Bereziartuak 1981. urtean idatzituzuten "Zamalbideko Elizaren Kondairatxoa" izena daraman liburuxka bat eta bertan "Santo Kristo Lixibakoa"ren inguruko kontaera jasotzen digute.

Egokia iruditu zait, joan berri zaigun Aita Eugenioren omenez, ele zahar eta gertakari horiek jasotzea, Agirretxeren hitzak errespetatuz.

Berak esaten digunez, *Zamalbide izeneko baserriaren ondoan aspalditxotik bazen ermita bat, eta hain zuzen Lixibako Santo Kristoren izena zeraman.*

Ermita eta bera ornitzen zuen irudiaren eta izenaren sorrera eta esplikazioa Aita Eugeniok Lubeltza – Berriko Salvador Yarzabalek esandako kontaera zahar batetik jaso zuen:

Aintzina hartan (auskalo noiz) baziren kristauak eta "jentilak" ere inguru hauetan. Kristauen ospakizunik haundiena meza izaten zen. Jentilek ezin eraman kristauen fede ospakizun hori. Eta hala, jentil batek, jaunartu edo, hobeki esanda, Jauna hostia kon-sagratuan ahoratu eta ahoan gorde-rik etxera eraman omen zuen, ahotik eskura pasata. Etxean lixiba egiten ari omen ziren. Lixiba egiterakoan txorros-



Foto: Jesús Hospitaller

ka (kupela moduko egurrezko ontzi haundi bat) erabiltzen zen eta bertan erroa zikindua egosi edo egiten zen ur berotan.

Jentilek hostia konsagratua lixiba-ontzira bota omen zuen. Eta, orduan, lixibako uretan odol gorria azaldu omen zen. Mirari hori ikusi eta miraria gogoratzeko eta ospatzeko Jesus gurutzatuaren irudi hori egin eta kristauak elizatxo batean jarri omen zuten, Lixibako Santo Kristo izendura berari emanaz.

Aita Agirretxek ez du esaterik noiz gertatu zen hori dena, ez eta noiz eraiki zen ermita zaharra eta Santo Kristoren irudia bera ere. Liburu zaharretan arakatu zuen arren, ez zuen horren arrastorik aurkitu. Santo Kristo Lixibakoaren izena, ordea, aspaldiko dokumentoetan azaltzen omen da.

Dena den, 1.874 urtean, Euskal Herria karlisten gerratean zelarrik, liberalek ermita hori erre egin zuten. Santo Kristoren irudia sutan galduko zela soldadu batek ikusi eta bere eskuz irudi santu hori su artetik atera egin omen zuen. Eta hala, Errenteriako Asunzioneko Parroki-elizara eramana zuten.

Handik 41 urtetara (1.915) Zamalbideko ermitatxoa bere lehengo hormatzarren gainean jasoa izan zen, Parrokiako apaiz eta batzorkideen erabakiz, Zamalbideko baserriaren jabearen baimenez eta auzotarren laguntzaz.

Orduan, 1.915eko azaroaren 10ean, Errenteriako parrokiatik prozesioan eta bidean Kalbarioko egonaldiak eginez, jende askoren artean, Lixibako Gurutze Santua berreraikitako ermitara eramana izan zen.

Ermita hori izan zen 49 urtez Zamalbide ingurukoen otoitz leku eta bertan gertatu ziren auzoko erlijio ospakizun eta gertakari nagusienak. Ermitak zutik dirau oraindik, baina funtzio desberdinarako erabili izan dela: lantoki eta biltegi bezala.

Auzokoen beharretarako txikiegia gertatzen zenez, 1.964eko apirilean hasera eman zitzaion oraingo eliza berriaren eraikuntzari, Fausto Gaiztarro arkitektoaren proiektuari jarraituz, Zamalbide baserriko Miguel Mazizior-ek dohan emandako lurretan.

1.966ko ekainaren 26an inauguratu zen eliza berria eta bertara eramana izan zen Lixibako Santo Kristoren irudia. Eta hantxe dago orain, elizako ate nagusiaren ezker aldean, hormatik eskegita.

Irudiaren deskribapena egite-rakoan eta bere balio artistikoaz hiztegitakoan ez du Aita Eugeniok zentzu kritikoa galtzen eta honela esaten digu: *Irudia bera egurrezkoa da, baldar xamar landua eta gainetik pobreaki margotua...baina fedez eta kariño haundiz tailatua, batez ere buruko hileen apaindura.*

Lerro xume hauen bidez, hizlari handi honek gure herriko Zamalbide auzoan egindako lanaren atal baten isla xume bat baizik ez dut jaso nahi izan. Bihoakio gure esker ona. ■



Foto: Jesús Hospitaler